



EBALUAZIO-ERRUBRIKA - URDAIBAI
PROIEKTUAK.EUS - Gure naturagune babestuak



IRIZPIDEA	4-BIKAIN	3-OSO ONGI	2-NAHIKOA	1-ESKASA
Arazoaren azterketa eta argudiatzea, datu eta arrazoi zientifikoak erabiliz. (NNZZ 6.2 irizpidea)	Museorako proiektuaren deskribapen zehatza egiten da. Proiektuaren aldeko eragileek defendatzen dituzten onurak argi azaltzen eta argudiatzen dira, baita haren kontrakoek aipatzen dituzten kalteak ere.	Museorako proiektuaren deskribapena nahiko ongi egiten da. Proiektuaren aldeko eragileek defendatzen dituzten onura batzuk azaltzen dira, baita haren kontrakoek aipatzen dituzten kalte batzuk ere, baina ez dira behar bezalako argudioak ematen.	Proiektuaren deskribapenean hutsuneak daude eta proiektuaren aldeko zein kontrako argudiaketan ere hutsune nabarmenak daude.	Proiektuaren deskribapenik ez da egin edo haren aldeko edo kontrako argudiaketarik ez da egin.
Argitasuna eta koherentzia ahozko aurkezpenean. (EUS 3.1. irizpidea)	Hizkuntza formala eta egokia da, eta ideiak modu koherente eta arinean adierazten dira. Taldekideek modu orekatuan banatzen dute diskurtsoa, eta nabaritzen da aldez aurretik entseatu dela.	Aurkezpena argia da eta egitura gehienbat logikoa da, baina zenbait puntutan koherentzia-arazo txikiak ditu. Hizkuntza zuzena da, baina antolaketa- edo adierazpen-akats txikiak daude.	Aurkezpenak nolabaiteko antolaketa erakusten du, baina diskurtsoa nahasgarria edo desegituratua izan da.	Aurkezpenak ez du egitura argirik eta zaila da jarraitzea. Hizkuntza desegokia edo desantolatua da, eta horrek mezu nagusia ulertzea eragotzi du.